



Arartekoaren 2018S-2574-17 Ebazpena, 2018ko maiatzaren 7koa. Horren bidez, Bermeoko Udalari iradokitzen zaio ostalaritza establezimenduetan musika-kontzertu txikiak egitea ahalbidetzeko baldintzak arau ditzan, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerei buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legearen xedapenekin bat.

Aurrekariak

1. Pertsona batek kexa-idazki bat aurkeztu du, Bermeoko udalerriko 4. taldeko hainbat ostalaritza establezimenduren sustatzaileen izenean. Horren bidez, Arartekoaren irizpena eskatu du honako egoera honen inguruan: Bermeoko Udalak era sistematikoan hausten dituela udalerrian aldian behin egiten diren jolas-jarduerak (hala nola antzerkiek edo musika-kontzertu txikiek) bete behar dituzten arau substantiboak.

Hain zuzen ere, kexagilearen arabera, Bermeoko Udalak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko otsailaren 20ko erabakia onartu zuenetik, antolatzaileei esanbidezko baimenik eskatu gabe eta ekintza antolatzen duen lokalari dagozkion lizentziaren edo alde zuzeneko jakinarazpenaren babesik gabe baimentzen ditu horrelako ekintzak –kontzertuak eta musika-jarduerak–.

Era berean, kexagileak arrazoitzen du establezimenduetako askok ez dituztela betetzen emankizun horiek behar bezala gauzatzeko eta ingurukoei eragozpenik ez sortzeko gutxieneko eskakizun eta baldintzak.

Hori guztia dela eta, kexagilearen iritziz, Bermeoko Udalak, udalerrian kultura-ekintzak eta interes orokorreko jarduerak sustatzeko asmoz, modu irregularrean baimentzen ditu aldian behingo jarduerak, horretarako berariazko baimenik gabe antolatzen direlako.

Horrez gain, kexagilea ez dago ados udalak aipatu erabakia onartzeko jarraitu zituen izapideekin. Bere iritziz, erabakia udal ordenantza baten bidez arautu beharko litzateke, eta horretarako, Udaleko osoko bilkurak onartu beharko luke.

Bukatzeko, azpimarratu du Bermeoko Udalean azaldutako kontuak aztertzeke asmoz egin zen azken bileran agerian utzi zela udalak kontrol eskasa duela Bermeoko kirol-portuan antolatzen diren jarduerak eta ikuskizun publikoen gainean. Bermeoko Udalak bilera horretan azaldu zuenez, udal administrazioak ez du portuaren eremuan esku hartzeko ahalmenik, horren kudeaketa Kirol Portuak erakundeari dagokiolako. Gauzak horrela, portuan egiten diren jarduerak eragin ditzaketen irregulartasunak Eusko Jaurlaritzako organo eskudunari jakinarazi beharko zaizkio.

2. Kexa izapidetzeko onartu ondoren, Arartekoak hainbat izapide egin zituen, bai Bermeoko Udalean, bai Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzan, administrazio eskudunek, aldian behingo jendaurreko





ikuskizunak edo jolas-jarduerak baimendu nahi izanez gero, nolako izapideak jarraitu behar dituzten jakiteko.

3. Egindako izapide horiei erantzunez, Bermeoko Udalak honako hau jakinarazi zigun: Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 25. artikulua xedatutakoaren arabera, establezimendu baten jarduera sailkatuaren lizentzia edo, hala badagokio, alde aurreko jakinarazpena titulu nahikoa da establezimendu-mota bakoitzari dagozkion edo gaikuntza-titulu horretan jasota dauden ikuskizun eta jarduerak garatzeko.

Gainera, lege bereko 25.4 artikulua xedatzen duenez, establezimenduaren gaikuntza-tituluak orobat gaitzen du jarduera nagusiaren lagungarri edo osagarri diren beste kultura- edo gizarte-jarduera batzuk edo antzerki- edo musika-ikuskizun batzuk antolatzeke; betiere, gaikuntza-tituluan aurreikusitako gainerako baldintzarik aldatu behar ez bada hura garatzeko, eta, bereziki, edukiera, ordutegiak, instalazioak edo lokalaren konfigurazioa aldatu behar ez badira, edo autobabes-planari eragiten ez badio plan hori beharrezkoa denean. Dena dela, udalari jakinarazpena aurkeztu beharko zaio jarduera osagarri hori hasi baino lehenago.

Hori dela eta, jendaurreko ikuskizunei eta jolas-jarduerari dagokienez, indarrean dagoen araudian xedatutakoa betez, Bermeoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak honako ebazpen hau onartu zuen aho batez, 2017ko otsailaren 28an:

“LEHENENGOA: Taberna eta Pub-etan kultur eta gizarte ekintzak, antzerkiak edo musika kontzertu txikiak egitea baimentzea beti ere baldintza honek betetzen badira:

- *Lokalak jarduera lizentzia izatea (Ostalaritzako 2. Edo 3. Taldekoa).*
- *Lokalaren gehieneko aforoa ez da inoiz gaindituko (0.5 pertsona/m² gune publikoetan).*
- *Talde bakoitzari dagokion ordutegia bete beharko da.*
- *Lokalak derrigorrezko aseguru indarrean eduki beharko dau.*
- *Suteen aurkako elementuak ondo funtzionatzen dabeneren ziurtagiria aurkeztu beharko da (su-itxalgailuak, larrialdietarako argiak, etab.)*
- *Lokalaren aireztapen behartuaren sistemak ondo funtzionatzen dabeneren ziurtagiria aurkeztu beharko da.*
- *Ezin izango da zarata muga honek gainditu: 2. Taldeak : 85 dB(A) eta 3. Taldeak: 90 dB(A)*
- *Lokala ebakutzeko pasabideak beti libre egon behar dira.*
- *Ateak eta leihoak itxita egongo dirala ekintza dirauen bitartean.*
- *Lokal bakoitzak urtero gehienez 6 ekimen antolatu ahal izango dauz.*
- *Udalean eskaria egitea beharrezkoa izango da eta eskaria gutxienean egin nahi dan ekintzaren data baino 3 asto lehenago aurkeztu beharko da.*

BIGARRENA: *Ostalaritzako Ordenantzan aukera hau arautzea.*





HIRUGARRENA: Euskerearen Normalizaziorako Udal Ordenantzeak euskerarearen erabilera udalerrian zabaltzeko dinoana aintzat hartuta, eta euskerearen normalizazioan pausuak emoten jarraitzeko, taberna eta pubek eragile diran heinean, egokia litzateke euskerearen presentzia bermatzea kultura ekintza horreek bideratzen diranean. Beraz, honako gomendioak egiten dira:

- Kultura eta gizarte ekintzak, antzerkiak, zein kontzertu txikiak iragarteko egingo dan publizitatea, bai ahozko formatuan egin, zeien idatzizkoan, euskeraz egitea.

- Kultur eta gizarte ekintzak, antzerkiak eta kontzertu txikiak egiten diranean, aurkezpen lanik egotekotan, aurkezpen horreek euskeraz egitea.

- Taberna eta pubek antolatuko dabezan ekintzetan euskerazko ekoizpenari lehentasuna emotea.

Tabernak eta pubek udalaren Euskera Sailaren laguntzaz bailatu ahal izango dira kultur ekintzetarako idatzizko kartel, esku-orri... eta abarren zuzenketa edo egokitze lana egite, zein gainontzeko edozein motatako aholkularitza eskatzeko."

Era berean, Bermeoko Udalak azpimarratu zuen, udalbatzak erreklamazio ugari jaso zituenez, idazki bat bidali ziola Eusko Jaurlaritzari, noizean behingo ekitaldi horiek bete behar dituzten eskakizunei (osagarritasunari edo behin-behinekotasunari dagokionez) loturiko kontu batzuk argitzeko. Hala ere, txostena bidaltzeko egunean oraindik Eusko Jaurlaritzaren erantzunaren zain zegoen udala.

Edonola ere, udalaren txostenarekin bat, aipatu erabakian xedatutakoa udal ordenantzaren bidez arautu aurretik komeni zen aipatu Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jardueri buruzko 10/2015 Legearen garapen-araudia –oraindik izapidean zegoena– onartu arte itxarotea. Hori guztia, irizpideak batzeko eta aipatu ordenantza Eusko Jaurlaritzak egindako erregelamendu bidezko garapenean xedatutakora egokitzeko.

4. Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak jakinarazi zion erakunde honi aldi berean behin egiten diren jarduerak Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jardueri buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legean arautu diren eta indarrean dauden xedapenak bete behar dituztela. Aipatu legea Eusko Legebiltzarrak onartu zuen. Era berean, Zuzendaritzak esan zuen legea garatzeko dekretuaren proiektua lantzeko azken izapideak egiten diren arren, oraindik ez dela behin betiko onespenerik eman.

Bermeoko Udalaren eskaerari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak adierazi zuen udalak dagoeneko aurkeztu zituela alegazioak legea garatzeko dekretua jendaurrean jarri zenean, eta laster emango zela horiei buruzko ebazpena.





Gogoetak

1. Oro har, esan behar da jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak aldian behin egiteak Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jarduerei buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legean xedatutako betekizunak bete behar dituela. Aipatu legea Eusko Legebiltzarrak onartu egin zuen eta EHAAn argitaratu zen (EHAA, 3. zk., 2016ko urtarrilaren 7koa).

Aipatu legearen bitartez, bateragarri egin nahi dira herritarren aisialdirako eskubidea eta lokal, esparru eta instalazio horiek –jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak egiteko– bete behar dituzten segurtasun-baldintzak. Gainera, araudia Europar Batasunaren araudiaren xedapenetara egokitu da; ondorioz, alferreko izapideak ezabatuta, norbanakoen ekimena sustatzen du, segurtasuna eta bizikidetzazaintzeko interes orokorraren kaltetan izan gabe.

Araudiaren bidez ziurtatu nahi da jendaurreko ikuskizun eta jolas-jarduerak garatzeko instalazioek betetzen dituztela ezinbesteko baldintza teknikoak, alde batetik, ikuskizun edo jarduerarekin zerikusia duten pertsonen eta ondasunen segurtasuna eta ikusleen babesaren bermatzeko, eta bestetik, inguruko eragozpenak saihesteko.

2. Ildo horretan, legearen 25.2. eta 31.2. artikuluek xedatutakoarekin bat, establezimendu publikoetan jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak egiteko, ez da alde aurreko baimen edo jakinarazpenik behar, ikuskizun edo jarduera horiek gaikuntza-titulu batean esanbidez jasotzen badira eta horren babespean badaude.

Gainera, lege bereko 25.4. artikulua araberak, establezimenduaren gaikuntza-tituluak orobat gaitzen du jarduera nagusiaren **lagungarri edo osagarri** diren beste kultura- edo gizarte-jarduera batzuk edo antzerki- edo musika-ikuskizun batzuk antolatzeke, betiere, gaikuntza-tituluan aurreikusitako gainerako baldintzarik aldatu behar ez bada hura garatzeko, eta, bereziki, edukiera, ordutegiak, instalazioak edo lokalaren konfigurazioa aldatu behar ez badira, edo autobabes-planari eragiten ez badio, plan hori beharrezkoa denean. Kasu horretan, udalari jakinarazpena aurkeztu beharko zaio jarduera osagarri edo lagungarri hori hasi baino lehenago.

3. Bestalde, legearen 31.3. artikulua xedatzen du, aldian behingo ikuskizun edo jolas-jarduerari dagokienez, administrazioaren alde aurreko baimena behar dela dagokion gaikuntza-titulua babespean ez dagoen jarduera zehatza egiteko, 25.4. artikuluan xedatutakoa galarazi gabe.

Era berean, aipatu behar da alde aurreko baimena behar dela aldian behingo jarduera horiek egiteko, horretarako baldintza tekniko orokorrak aldatu behar badira, segurtasuna ere aldatu behar bada, edukiera handitu behar bada edo jendea hartzeko egitura desmuntagarriak jarri behar badira.





Era berean, aldez aurretik esanbidezko baimena beharko da bide publikoetan eta erabilera publikoko leku irekietan egiten diren aldi behingo jardueren kasuetan –pirotekniazko lehergailuak jaurtikitzea edo erretzea, zezen-ikuskizunak, herriz kanpoko bideetako kirol-probak– edo legeak ezarritako beste kasu batzuetan, ikuskizun edo jardueraren nolakotasuna eta ezaugarriak kontuan hartuta, 31. artikulua lehenengo paragrafoan adierazitako interes orokorreko arazoak baldin badaude.

4. Aldez aurreko baimena lortzeko prozedura interesdunak eskatuta hasiko da. Eskabidearekin batera antolatzailearen identifikazio-agiria aurkeztuko da, eta honako hauek zehaztuko da: jardueraren deskribapena, non eta noiz egingo den, ordutegia eta iraupena. Era berean, araudiak kasuan-kasuan eskatzen duen dokumentazioa erantsiko da.

Horrez gain, aginduzko baimena eman aurretik, administrazio eskudunak egokitzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eska ditzake, eta ikuskaritza-zerbitzu teknikoek nahi adina ikuskapen-bisita egin, lokala jarduera antolatzeko egokia den egiaztatzeko.

Aurkeztutako dokumentazio teknikoa aztertu ondoren, administrazio eskudunak dagokion ebazpena emango du, aldi behingo jarduera egitea baimentzen duena, baldin eta ebazpenean bertan ezarritako baldintza eta betebeharrak betetzen baditu. Emandako baimenak aldi behingo jendaurreko ikuskizun edo jolas-jarduerak egitea onartuko du, eta amaiera-orduan bukatutzat ematen diren jarduerak, ohiko edo aldizkako bihurtzen eta errepikatzen ez direnak, hartuko dira aldi behingotzat.

Edonola ere, baliteke baimenaren eskaera ez onartzea, lege ezarritako baldintza teknikoak ez direla betetzen egiaztatzen bada, jardueraren segurtasunari dagokionez gabeziak antzematen badira edo eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada.

5. Bestalde, aipatu 10/2015 Legearen 39. artikulua aldez aurreko jakinarazpenaren araubidea ezartzen du. Izan ere, artikuluekin bat, kultura- eta gizarte-jarduerak egin daitezke, **aldez aurretik udalari jakinarazita**, nahiz eta egin nahi den jolas-jarduera edo ikuskizuna lokalari dagokion gaikuntza-tituluan espresuki baimenduta ez egon, baldin eta legearen eranskineko katalogoan agertzen bada.

Jarduera nagusiaren osagarriak edo lagungarriak izan behar dute jarduera horiek, hau da, ezin dira ohikoak edo aldizkakoak izan, eta gaikuntza-tituluan jasotako jarduerak osatu, hobetu edo erakargarriago edo perfektu bihurtzeko balio behar dute.

Horiek egiteko, inola ere ezingo dira aldatu ez ezarritako gehieneko edukiera, ez esparruaren berriazko autobabes-plana, halakorik izanez gero. Ikuskizunean





parte hartzen duten aktoreen kopurua baimendutako gehieneko edukieratik kenduko da. Jarduerak iraun bitartean, ezin izango da aldaketarik egin, ez instalazioetan, ez lokalaren itxuran, ezta gaikuntza-tituluan ezarritako gainerako baldintzetan ere. Inola ere ez dira aldatuko aurreikusitako orduak, udal araudiak jarduera osagarriak egiteko ordu-tarte bereziak ezartzeko aukera galarazi gabe.

Jarduerak bete behar dituzte udal araudiak ezartzen dituen baldintza orokorrak, adibidez, soinu-ekipoen potentziari dagokionez edo, bezeroentzako aurreikusitako azalera kontuan hartuta, interpretatzaileen gehieneko kopuruari dagokionez.

6. Jarduera alde zuzenetik jakinaraztea eskatzen den kasuetan, legearen 39. artikulua xedatzen du esanbidezko jakinarazpena aurkeztu behar dela eta egin nahi den jendaurreko ikuskizunaren edo jolas-jardueraren berri administrazio arduradunari eman, ikuskizuna edo jarduera egiteko aurreikusten den eguna baino gutxienez hamar egun lehenago. Gainera, honako hauek adierazi behar dira: jarduera egingo den eguna eta ordua, establezimendu publikoa eta esparrua, horren edukiera eta kapazitatea. Horrez gain, jakinarazpena egitean, jarduera egin nahi duen lokalari dagokion lizentziaren edo aurretiazko jakinarazpenaren kopia aurkeztuko da.

Lokalaren gaikuntza-tituluan jasotako baldintza teknikoak eta segurtasun-baldintzak inola ere ezingo dira aldatu. Egin nahi den aldian behingo ikuskizun edo jarduera lokalak daukan erantzukizun aseguruaren bidez babestuta egongo da edo, hala badagokio, aseguru-etxearen ziurtagiri osagarria aurkeztu beharko da, egingo den jarduera babesten duena.

7. 700 pertsonatik gorako edukiera duten **lokaletan jolas-jarduerak eta jendaurreko ikuskizunak egiteko** eta su festak eta zezen-ikuskizunak antolatzeke aginduzko baimenak ematea Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari dagokio.

Gainerako kasu guztietan, udalei dagozkien alde zuzeneko jakinarazpenak jasotzeko, gainerako lokal eta establezimenduetan aldian behingo ikuskizun eta jarduerak baimentzeko eta leku irekietako jarduerak egiteko gaikuntza-tituluak emateko eskumenak.

8. Honaino azaldutakoa ikusita, itxura guztien arabera, aipatu udal erabakian jasotako jarduerak egin nahi izanez gero, alde zuzenetik udalari jakinarazi behar zaio, Euskal Autonomia Erkidegoko Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jardueren buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 25.4 artikuluan xedatutakoarekin bat. Gainera, jakinarazpenaren iraunaldia ikuskizuna edo jolas-jarduera amaituta iraungi egingo da.
9. Azpimarratu behar da **administrazio eskudunen kontrola** ez dela jarduera hasterakoan soilik egin behar; aitzitik, era egokian garatzeko, jarraipena egin eta emaitza zehatz bat eskatu behar zaio, alde zuzenetik ezarritako baldintza teknikoari eta ingurumen-segurtasunari dagokienez.





Aipatu legeak, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jardueri buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legeak, administrazio baimentzaileei esleitzen dizkie kontrolatu eta ikuskatzeko eginkizunak, jarduera hasten denetik amaitu arte egin behar direnak.

Hori dela eta, agindutako ezinbesteko baldintza teknikoak eta segurtasun-baldintzak betetzen ez badira, eskatutako dokumentazio teknikoa aurkeztu ez bada, edo dokumentazioan oinarritzko daturen bat ez dela zehatza, falta dela edo faltsutu dela uste bada, udalak, gorabehera horren berri jasotzen duen unetik bertatik jarduera galarazi edo bertan behera utz dezake, dagozkion erantzukizun penal, zibil eta administratiboak eskatzea galarazi gabe.

10. Azkenik, nabarmendu behar da, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. artikuluan xedatutakoarekin bat, udaleko osoko bilkurari dagokiola xedapen orokorrak – adibidez, dagozkion lege-xedapenak garatzen dituzten udal ordenantzak– onartzeko ardura. Xedapen horiek behar bezala onartzeko, toki-administrazioek arautzeko ahalmena gauzatzeko ezarritako prozedura bete behar dute. Hori dela eta, udal organo baten erabakia ezin da gai bat arautzeko xedapen orokortzat hartu.

Gauzak horrela, aztertzen ari garen kasuan azpimarratu behar da Bermeoko Udalaren aipatu udal erabakian, besteak beste, establezimenduak egin ditzakeen ekitaldien gehieneko kopurua xedatu dela, indarrean dagoen lege-esparruan aipatu ez den arren. Era berean, aipatu udal erabakian jasotako epea –jarduerak aldeztu aurretik udalari jakinarazteko– ez dator bat Euskal Autonomia Erkidegoko Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jardueri buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 39. artikuluan xedatutakoarekin.

Hori dela eta, Bermeoko Udalak, eskakizun gehigarriak ezarri nahi izanez gero (indarrean dagoen legedian dauden gutxienerako xedapenez gain), dagozkion udal ordenantzaren bidez arautu behar ditu eskakizun horiek.

Hori guztia dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, Arartekoak honako iradokizun hau egin nahi du:

IRADOKIZUNA

Bermeoko Udalak udal ordenantza bidez arautu behar du Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueri buruzko abenduaren 23ko 7/1985 Legean xedatutako baldintzen garapena, jarduera nagusia osatzen edo hori garatzen laguntzen duten jarduerak –kultura- eta gizarte-ekitaldiak, antzerkiak edo musika-kontzertu txikiak– egitea ahalbidetzeko; hori





guztia, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoa betez.

Ildo horretan, Bermeoko Udalaren jardunbidea, dauden lokaletan aldi behingo jolas-jarduerak egitea kontrolatu behar duen organoa denez, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jarduerei buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legeak, indarrean dagoenak, lege-xedapenei egokitu behar zaiela esan behar da.

Horren harrira, Arartekoak gogorarazi nahi du araudiak aldez aurreko jakinarazpena eskatzen duela egin nahi den aldi behingo jolas-jarduera gaikuntza-tituluaren babespean ez dagoenean, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jarduerei buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 25.4. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Bestalde, jarduera egiteko gaikuntza-titulurik ez duten lokalen kasuan, araudi berak administrazio-baimena eskatzen du, baldin eta lokal horiek Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jarduerei buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 31.3. artikuluan xedatutakoa betetzen badute.